



HIZKUNTZA POLITIKA NAFARROAN

Euskararen Foru Dekretua osorik baliogabetu du Auzitegi Nagusiak

Miguel Sanz lehendakariak esan du helegitea aurkeztu edo ez aztertuko duela Nafarroako Gobernuak

Abokatuen arabera, ordea, erabakiari helegiterik ezin zaio jarri, eta 1994ko dekretua da balio duen bakarra

UPNko gobernuak ezusteko galanta jaso du Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aldetik. Administrazioan euskararen erabilera zuzentzen duen Foru Dekretua oso-osorik baliogabetu dute epaileek, egun bat lehenago eremu euskaldunari zegokion atala baliogabetu ondoren. Euskara Kultur Elkargoak jarritako helegitea ontzat jo du Auzitegi Nagusiak, eta, ondorioz, dekretua, bere osoan, eta hortik ateratako ekintza guztiak baliogabetu ditu. /6-7

ARTEA



LUIS TEJIDO / EFE

Bisitari bat, Guggenheim museoak ikusgai jarri dituen Kandinskiren lanetako bati begira.

Kandinski goitik behera Guggenheim museoan

'Vassili Kandinski bere testuinguruan' erakusketa urtarrila arte egongo da

Vassili Kandinski artista errusiarraren (1866-1944) 50 koadro ikusgai dira atzodanik Bilboko Guggenheim museoan, 'Vassili Kandinski bere testuinguruan' erakusketan. Kandinskiren lan koloretsu eta harrigarriekin batera, haren garaiko beste hemeretzi artistaren 40 artelan ere ikus daitezke. Erakusketak urtarrilaren 12 arte iraungo du. /38-39

BATASUNAREN AURKAKO EKIMENAK

Batasunaren ondasun guztien zerrenda osatzen hasia da Baltasar Garzon

Alderdiaren ordezkari legalari oraindik ez diote helarazi ofizialki epailearen autoa /8-9

ETA-REN AGIRIA

Europako agintariak Sevillako goi bileran egondako egunetako bost atentatuak bere gain hartu ditu ETAk

Santiago Bernabeu futbol zelaitik gertu eta Nafarroako Unibertsitatearen aurka egindakoak ere bere gain hartu ditu ETAk. Apirilaren 20tik ekainaren 22a bitarteko hamar ekintzaren berri eman du gutzira. /13

100 SMS edo 100 Minutu.



Udan berriro kargatzeko txartel berriak zeresan handia emango du.